



## II KULTUR OLINPIADA

## II MUSIKA LEHIAKETA

2017/2018 ikasturtea

Donostiako SUMMA-Aldapeta Ikastetxeko **IGEk eta irakasleek** II Kultur Olinpiada deitu dute, sormena eta ezagutza sustatzeko eta hezkuntza jarduerak bultzatzeko asmoz.

Alberto Echeverría Lehiaketa eta gero, II Musika Lehiaketaren oinarriak aurkezten dira:

### Modalitateak

1. Lehiaketak modalitate bakarra izango du: **Musika emanaldia**.

### Parte-hartzaileak

2. **Musika Lehiaketan** Ikastetxeko LHko hirugarren zikloko ikasleek (5. eta 6. maila) eta DBHko ikasleek har dezakete parte.

### Musika emanaldia

3. Partaideek banaka edo taldeka jardungo dute lehiaketan. Taldeak, gehienez, 3 kide izango ditu.

### Oinarriak

4. **Musika emanaldia**.- Ikasleak abesti bat interpretatuko du, abestuz zein instrumentu bat erabilia. Abestia dantza batekin lagun daiteke eta, gehienez, 2 minutuko iraupena izango du.

5. **Formatua**.- mp4 bideo formatuan aurkeztuko dira eta [cdovale@summa-aldapeta.eus](mailto:cdovale@summa-aldapeta.eus) helbidera bidaliko dira, gaian "Musika Lehiaketa" zehaztuz.

6. **Identifikazioa**.- Korreoa partaideen izen-abizenak eta kurtsoa agertuko da.

7. **Onartzeko epea**.- Lanak onartzeko epea bi data hauen artean izango da: **2018ko otsailaren 5a – 2018ko martxoaren 9a**.

8. **Lehen hautaketa**.- Lehen fasea igaro ahal izateko, lanek arte kalitate nabaria izan behar dute.

9. **Epaimahaia**.- Irakasleak aukeratuko ditu epaimahaikideak, eta haien epaia apelaezina izango da.

10. **Sariak**.- Etapa bakoitzean (Lehen Hezkuntza eta DBH) irabazten duen pertsonak **Diploma** eta **100 euroko** txartela eskuratuko ditu saritzat.

11. **Parte-hartzaileen balorazio akademikoa**.- Lehiaketan parte hartzea, aurkeztutako lanaren gaiarekin lotutako irakasgaiaren balorazio akademikoa egiterako orduan, elementu gehigarri bat izan daiteke, betiere aipatutaako lanak oinarri hauen 8. puntuan adierazitako baldintza betetzen badu.

12. **Epaiaren argitaratzea**.- Bi etapetako lan irabazleak **2018ko apirilaren 26eko** zeremonian emango dira aditzera. Ikastetxeko webgunean argitaratuko dira irabazleen lanak.

13. **Oinarriak onartzea**.- Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarri hauetan aurreikusi ez diren gertakariak dagokion epaimahaia ebatziko ditu.

**Anima zaitetz parte hartzera!**